

# U

Joseina  
Etxeberria

Urduria, alaia eta oso  
berritsua; geldi egoten ez  
dakien horietakoa. Euskadi  
Gaztea-ko esataria da duela  
hamar urte



Irudia

# Ezkonberriak

Irudi honekin egin zuen topo gure argazki-harrapakari Mikelek Plentziatik paraje. Anitzina idiek tiratutako gurdietan joaten ei ziren ezkonberriak; gaur egun, berriz, lorez apaindutako auto dotoreetan. Argazkikoel, euren lagunek prestaturakotako gurpilakupa haupa tokatu zitzaizagere Gako jidugul Udulizkolizwiki eta Armintzako Rafakzi Biazkolo ezitzaueki Zorionakbrionak!



Argazki: Mikel Mentez



■ Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



■ Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jaso du

Salsidu 5, 1. solairua 48990 Algorta

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta E.B.E. HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO / e-mail: aldizkaria@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37 ZUZENDARIA: Jokin Aspuru ERREDAKZIOA: Esti Ezkerra, Andoni Llosa, Konrado Mugerza, Raul Agirre ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Butron INFOGRAFIA: Guillermo Almagia MARRAZKILARIA: Gorka Vázquez KOLABORATZAILAK: Bittor Egurrola, Jokin de Pedro, José Ignacio Lobo, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Unai Elorriaga, Xabier Buenetxea, Algortako Bertsolari Eskola ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugerza PUBLIZITATEA: Amaia Bilbao (94 463 92 63, 94 491 13 37) FILMAZIOA: ARGIA INPRIMATEGIA: GESTINGRAF





## Barrukoa Taberna

Telletxe 5



ALGORTA

## SANTANA KIOSKOA

Prentsa eta aldizkariak

**Santana kalea, Amaiarekin bat**

BEROGAILU ETA ITURGINTZA EZARKE-



T: 430 53 46

Sarrikobaso 15 48990

## GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarrerriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13  
T: 430 22 13 T: 460 02 88  
GETXO ALGORTA

# Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO  
Neguriko Etorbidea 9  
T: 491 14 87  
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Aingeruaren etorb. 4B  
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 GETXO


e-mail elkarrizketa

## Berlinetik, Irati Elorrieta Agirre

Alemania

Helbidea: eirat@hotmail.com

Jendea Interesgarria Bilatu Internet e-mail Software



- Irati Elorrieta Agirre, 20 urte ditu, algortarra da
- Ikus-entzunezko ikasketak eginak ditu
- Berlinen bizi da Erasmus bat egiten

### "Bere burua berreraikitzen ari da Berlin"

Orain non bizi zara? Zehazki non Irati?

Berlinen, ikasle erresidentzia batean bizi naiz, baina askoren artean konpartitutako pisu modura funtzionatzen du. Munduko bazter askotako jendearekin bizi naiz; gainera, zorte handia izan dut pisuko jendearekin. Erdigunean dago erresidentzia, baina horrek ez du esan nahi oinez noan lekuetara. Erdian bizitzek esan nahi du bai bizikletaz bai "trennez" dena hurbil geratzen dela.

Lehen Bonn zen baina orain Berlin da Alemaniako hiriburua. Zer giro dago?

Berlin oso bizirik dago, bere burua berreraikitzen, bere izaera bilatzen. Hirigunea harrisia zegoen espazio osoa garabiz beteta dago eta eraikitza lanak beldurgarriak dira. Bonn-eko gobernu osoa Berlinera eroateko, hirigune bat urte gutxitan sortzea... Baina oraindik Berlin espazioz betetako hiria da, estresik gabea, prisarik gabea, oso lasaia. Jendea badabil, noski, udaberria heldu zaigunetik, batez ere, baina denentzat dago lekua. Denentzat, eta bereziki, gazteentzat. Oraindik eraikitza berriek ez dute hiria jan eta oso garai historiko berezi baten giroa bizi daiteke.

Zergatik aukeratu zuen Berlinera joatea eta ez beste nonora?

Burugogor xamarra naiz -bueno, oso burugogorra- eta Berlin sartu zitzaidan buruan. Berlin edo ezer ez, esan nuen. Arrazoirik gabe, ez bainekien ezer Berlini buruz. Ez da arrazoi sakonik behar erabaki on bat hartzeko. Ezer jakin gabe, oso garrantzitsua izango zen aukera egin nuen.

Kontatu apur bat zure egun bat hor nolako den?

Orain nire egunek aldaketa izan dute. Negutik udara pasatu gara udaberriaren eztanda arin batekin. Neguan arratsaldeko lauretan gaua zen eta hotza... egiten zuen. Unibertsitatea, zinea, pisuko elkarbizitza eta eguzki ordu apurrak hiria esploratzeko aprobetxatu. Baina orain, goizeko lau eta erdietan eguna argitzen du eta zazpietarako beroa jasangaitza da. Eguna luzea da eta neguan barnean gordeta zegoen bizitza, orain kanpora irten da.

Noiz joan zinen eta noiz arte geratzeko asmoa daukazu?

Ez da oso galdera atsegina. Berlin oraingoz bukatuko zaidala gogorarazten dit eta. Urriean heldu nintzen eta asko kostatzen zait bueltarako egun bat jarzea. Abuztuaren edo itzuli beharko dut, baina gai honi ihes egiten saiatzen naiz beti.

Etxetik urrun bizi izanda, zeren falta sentitzen duzu, zelako gauzak?

Maite dudako jendearen urruntasuna da sentitzen dudana. Komunikazioaren iraultza famatuak telefono dei merkeak eta posta elektronikoa eskaintzen dizek. Baina transportarearen iraultzaren zain nago, ea noiz hartu daitekeen hegazkin bat Algortara, Londresera, Lyonera edo batek nahi duen lekura bertako jendearekin egoteko, kafetxo bat hartzeko, ordu batzuk elkarrekin pasatzeko. Beste guztia anekdotak dira. Gazta goxoa jasotzea lortzen dut, Fermin Muguruzak kontzertu bat ematen du, Itotzeko solidarioen jaietan pintxoak daude... Urruntasuna hurbiltzen duten gauzak dira, baina pasadizoak.

Kanpotarra izanda, zelan hartu zaituzte hor?

Nik ez dut arazorik izan. "Familian" denetarik dago eta egon dira: frantsesak, esloveniarrak, ingelesak, errusiarrak, poloniarrik... eta alemaniarrek ere bai. Atzeritarren lagunak diren alemaniarrei, gustatu egiten zaien giro multikulti hau; horregatik egoten dira gurekin. Hasieran desastre hutsa ginen hizkuntzarekin, galdera piloan egiten genuen, astiro hiltz egiten genuen... Hala ere, gurekin zeuden, eta hori giro nahastu hau benetan gustatzen zaielako da. Neonazi dexente omen dago oso ekialdeko auzoetan baina nik ez dut bizipen desatsegirik izan. Asteburu honetan, trenan gindoazela, neonazi batzuek, sudurra tapatu zuten —atzeritar hutsa genuen nonbait— baina hori izan da bakarra. Horko giroa egokitzeko, zer da gehien kostatu zaizuna?

Berlinen, hainbeste aukera egonik, zailena norberaren estiloarekin bat datorren giroa aurkitzea da. Asko probatu behar da gustukoa aurkitzeko. Bilatu egin behar da, baina hitzaren zentzu estuenera, Berlinen gauzak ezkatuturik baitaude: barruko patioetan, sotoanetan, fabrika zaharretan ezkatututa... Beraz, esplorazio lanak denbora eskatzen du, baina aldi berean oso dibertigarria da.

Zer da hiri horretan gehien estimatzen duzuna? Zer gustatzen zaizu gehien?

Edozein hiri handik eskaintzen duenaz gain, Berlinek eskaintzen duena: espazioa. Historia oso berezi baten ondorioz libre dagoen espazioa. Eta gazteek espazio hori aprobetatzeko daukaten gaitasuna, azpi espazio propioak sortzeko gaitasuna, gazteek gazteentzako sortutako kulturune propioa eta iraukorrik, nork bere kokoa, bere mundua sortzeko aukera, adierazteko aukera (pentsa, Getxon kartelak ere ezin dira jarri). Eta bizikletaz mugitzeko aukera. Eta Berlineko auzo askoren estelika kutrea, fabrikaren estetika, bonben arrastoak dituzten etxeen estetika, graffitiaren estetika, gotik doazen trenbidetaren estetika, kaleko artea... Bai, kulture bizi-bizi horren estetika indartsua. Berlinera behin etorritzen denak bueltatu nahi izaten du.

JOSE IBAÑEO LOBO



ikimilikiliklik

## San Juan sua

Zein da suaren misterio ezkutua? Zergatik hipnotizatzen gaitu begira gaudenean?

Zergatik da hain ebokatzailera? Suaren inguruan batzen zen jendea lehen; aspaldi

telebistak lapurtu zion lekua. Zorionez, eta urtean behin bakarrik bada ere, suaren

inguruan elkartzen segitzen du jendeak San Juan egunez. Argi eta berotasun iturria

da sua; ondo aztertuz gero, bizitzeko ez da askoz gehiagorik behar.



## Antimilitaristak epaitegian



Maiatzaren 29an zazpi gazte antimilitarista epaitu zituzten Bilbon, haien artean hiru getxotzar: Nerea Herran Muruaga, Igor Herran Muruaga eta Santi Lapatza-Gortazar. Delitua: armaden abolizioa eta gastu militarrik gizarte beharretara bidera daitezela aldarrikatzeko, ekintza baketsuan, Gobernu Militarrean kateatu izana. Eta ez hori bakarrik, hiru hilabete barru "gera kontseilua" izango dute gauza beragatik. Ekintza hartan Unai Molinero intsumisioa atxilotu zuten. Unai, "intsumisioa kuarteletan" kanpainari segituz, soldaduzka egiten ari zen kuarteletik alde egin zuen. Orain, beste antimilitarista batzuk bezala, Alcalá de Henares presondegi militarrean dago desertzioagatik urte bi eta sei hilabete zigorra betetzen. Ekintzaren ondoko egunetan, Alderdi Popularrak Legebiltzarrean ekintza antimilitarista hauen aurkako errepresioa areagotzeko eskatu zuen; eskakizuna antza, entzun dute.

\* Goian, ekintza eguneko irudia

## UK, urtebete zuekin

Honezker, Bizarra Lepoan aldizkaria zenaren errautsetatik sortu genuen UK-k bere lehenengo urtea bete du; hortaz, bada balantze txikia egiteko ordua. Jakin dezazuen, 3.000tik gora lagunek jasotzen duzue aldizkaria hilabeteko etxean, eta hori pozgarria da guretzat. Gainera, aurten, erakunde publikoetatik erantzun ona jasotzen ari gara (Getxo eta Leioako udaletatik, batez ere); bestetik, iragarle gutxi baina fidelak ditugu.

Baina dena ez da larrosa kolorekoa. Oraindik eskualdeko euskaldun askok ez du aldizkaria ezagutu ere egiten, eta hori penagarria da guretzat. Hortaz, eskakizun bat: gure aldizkariaren berri eman ezazue zuen inguruko lagunei, anima itzazu aldizkaria jasotzera, ideia zabaldu. Bestalde, aldizkariari prezioa jarri nahi izan diogu, 2.000 pta. urtero besterik ez. Batzuk ordaintzen animatu zarete,



Orain arte kaleratu ditugun zenbakien azalak

baina beste asko falta zarete. Aldizkaria egitea oso garestia da (bulegoaren alokairua, inprenta, posta bidezko banaketa...). Hori guztia ordaindu behar da. Datu bat: aldizkaria egiteak 9 milioitik gora kostatuko zaigu aurten.

Amaitzeko beste eskakizun bat: aldizkari bizia egin nahi dugu, zure moduko irakurleentzako aldizkari

interesgarria. Horretarako behar-beharrezkoak ditugu zuen ekarpenak, zuen proposamenak, ideiak, idazkiak... UK-n kolaboratu nahi duenak guregana jotzea besterik ez du egin behar, zain gaude!

## San Jorge eta herensugea



## Zure ustez zein da euskararen osasun maila 0tik 10era? Zergatik?

BALMASEDAKO IBILALDIAN EGINA: IRUNE AGIRRE, AIALA ELORRIETA, MAITANE NEREKAN & KATRIN MUGERZA



Bost; uste dut jendeak ez duelako ikasi nahi; Sonia Cubero, bankaria (Barakaldo)



Bost; jgual, jendeak ez duelako nahi euskara ikasi, ez duelako hitz egin nahi; Aitor Polo, garrantzaria (Ortuella)



Bost; bat, ja, ja, ja, ez dakit, ikasi, asko... hitz egin gutxi; Nerea eta Iratxe, ikasleak (Bilbo)




Batu bat edo; jende askok ikasten du, bai, jende asko prest, baina ez dute erabiltzen; erderaz egitea; Arantza Garcés, ikaslea (Getxo)



Hamar bat, munduko hizkuntzarik hobereana delako; Naiara Ozamiz eta Mireia Martínez, ikasleak (Getxo)




Sei bat; gaur egun gazterak asko daki baina jende helduak ez. Ez dute erabiltzen; Gorka Arkotxa, ikaslea (Getxo)



Ez dakit, zuenzatz? Zortzi edo bederatz; ezker aldean gutxi baina eskumaldean gehiago; ikastola gehiago jarri behariko lirake; Sergio Rodríguez, ikaslea (Sestao)



Zortzi; eh, joo... oso ongi pasatzen dugulako eta... "estoy oso morada"; Araitz Molano, ikaslea (Bilbo)



Ba... orain zortzi; ba... jende gehiago hitz egiten duelako; Ander González, ikaslea (Basauri)

**basurto**  
algorta S.L.  
altzariak  
T: 4607162 - 4604244  
telletxe 15, algorta

**GAVRKO**  
GIZONENTZAKO MODA  
Telletxe 5  
ALGORTA  
T: 4607084

**María Jesús**  
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA  
Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA  
HARTU TXANDA

**EREAGA**  
Bidaiak  
Autobusak  
T: 453 08 16 - 909 40 59 88  
GETXO

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak  
*nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!*  
Algortako etorbidea 78  
T: 94 491 27 34

**VILLABOTAS**  
JATETXEA  
Menu merke eta bariatuak  
Especialitateen karta  
Giro atsegina  
T: 430 43 33  
Villaondoeta 2, ALGORTA

**MOROTXO**  
**Kantxa Kizol moda**  
TORRENE 13  
48990 ALGORTA  
TF. 4911882

**CALENDOS**  
**RIKI**  
UMEAK  
GAZTEAK  
Kale Nagusia 30 - T: 4645543  
AREETA





erreportaia



# Karin, itsasoko behargina

Urbe Kostako portuetan (Arriluze, Plentzia eta Armintza) lau-bost arrantzale profesional baino ez dagoz; azkenekoak dira eta badirudi erreleborik ez dagoela. Baina zelangoa da gizon hauen bizimodua? Erantzun bila, Karin Lastraren Itxaso arrantzuntzira igo eta egun osoa eman genuen beragaz eta Txaparron bere laguntzaileagaz.

ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ / TESTUA: JOKIN ASPURU

**K**arin Lastrak berrogei urte ditu eta duela hamar dabil arrantzale profesional moduan. Han eta hemen galdetuz ikasi zuen ofizoa, autodidakta da eta ez du sekula bere burua izan ez den beste inorentzat lanik egin itsasoan. Algortako Arriluze kaian dauka bere egurrezko arrantzuntzia; Itxaso deitzen da bere bi alabetako bat bezala. Arriluzen bera eta "Faneka" dira arrantzale profesional bakarrak. Karinek baxurako arrantza egiten du, hau da, kostaldea ikusmiratik galdu barik egiten dena. Hamabi ordutik gora egiten du behar egunero eta ez daki oporrak zer diren "Portu Zaharreko jaietan lau egun hartzen ditut lagunegaz auzoko jaiak

gozatzeko". Etxean, batez ere alabak, gutxi ikusten dutela-eta, sarritan keaxten zaizkio. Gainera, ogibide honen arriskua ere badago tartean; meatzariek gertatzen den moduan, sekula ez da jakiten-eta noiz etxeratu den arrantzalea. Baina Karinek (eta esateko moduagatik gustatzen zaiola ematen du) beste ezer egiten ez dakiela esan digu. Eta berak egiten dakiena zera da: artisa-arrantza. Ez du sarerik erabiltzen, "alergia ematen didate" aitortu digu. Izan ere, arrantzuntzi handiak (pelagikoak...) dagoen arrantza apurra sarraskitzen ari dira. Sarekada baikoitzean hamar tona arrain harrapa dezakete baina horretatik zazpi bat baino ez da aprobetxatzen eta beste

guztia itsasora botatzen dute berriro; hori bai, hilik. Arrain eskasiaz gain, badira beste eragozpen batzuk: ordaindu behar diren zergak, gasolioaren prezio lotsagarria, bitartekariak arrantzaleari kobratzen dizkioten komisiok... Hala ere, berean segitzen du Karinek.

Itsasoan horrenbeste urte eginda ez zaio pasadizorik falta. Adibidez, hamazazpi kilotik gorako itsas sapo bat harrapatu zuen behin. Beste pasadizo batzuk osteria ez dira horren atseginak izan. Abran, arrantzan zegoela, giza gorpu bat aurkitu zuen, eta Azkorrin beste bat.

Urritik martxora, debekualdia amaitzen denean, kaiolekin marisko hartzen ibiltzen da (kiskiloia...) Karin.

Martxoan untzian konponketak egin eta segituan berdelari ekiten diote maiatzera arte. Ondoren Armintzara eroaten du untzia eta udan lebatza eta lupinen bila aritzen da. Eta horrela urtero. Orain untzi berria erosi behar du, fibrazkoa, hozkailu eta guzti. Datorren urtean hegaluzearen kanpaina egingo du.

Urte askotarako!



1 Goizeko bost eta erdiak dira; gosari energetikoa (Cola Cao eta María Fontaneda) eta lanera abiatzen da Karin. 2 Itsasoratu aurretik, aparejeoi azken ikutuak ematen dizkie etxeko lonjan. 3 Ordu txikietan ez da inor Portu Zaharreko kaleetan. Karin "Riberamune"tik behera.



4 Portu Zaharretik Arriluzerainoko bidea autoz egiten du; ez da denborarik galdu behar. 5 Goizak freskoak dira itsasoan eta arropa beroa jantzi behar da. Atzean "Txaparron". 6 Txintxorroan "Itxaso" arrantzuntzira, motorrak berotu eta hasi da lan eguna.



7 Eguzkiaren lehen izpiak lagun, badoaz arrantzaleak. 8 Egunero legez, lemari tinko heldurik, bezperan botatako palangreen bila abiatzen du Karinek "Itxaso" bere arrantzuntzia. 9 Hasi da lana; bezperan botatako 800 amu igo egin behar dira. Ea zorterik dagoen!



10 Itsasoak bere lehenengo bitxia eman du: urraboru (dorada) bat! Arrainek ez dute amu guztietan teink egiten. 11 12 Oraingoan... arraigorri bat!





erreportaia



13 Karinek alea jasotzen duenean, Txaparron, salabardoa eskuetan, erne egoten da arrainak ihes egin ez dezan.



14 Arrainak kontu handiz askatu behar dira amutik.



15 Arrainen kutxa betetzen hasi da: lupinak, txixarroak, txokoak, urraboruak...



16 Azkeneko pieza, hiru kiloko urraboru eder bat.



17 Orain kaiolak igo behar dira. Kaiolak, arrantza egiteko behar den jakia edo amuzkia (karramarroak...) harrapatzeko botatzen dituzte.




18 Arriluzerako bidean jartzen du "Ibaxo" Karinek; itsasoak emandakoa saldu eta bazkaltzera!



19 Arrainak merkatuan saldu behar dituzte halaberharrez eta legez arrantzaileek; bitartekariak %20 erotzen dute.



20 Enri zain egoten da Arriluzen eta Karini laguntzen dio zama lanetan. Bitartean, Txaparronek txintxorroa (potina) lotuko du.



Batzuetan, arrantza eskasa dagoenean bakarrik, Gaizka Escuderori, "Pipi'ri, saltzen dio Karinek hartutakoa.



21 Bide batez, Pipiren jatetxean bazkaltzen dute arrantzaileek. Hori bai, arraina barik okela xerra eder bat eskatu dute bieki.



23 Arratsaldean berriro itsasoratzen da Karin, eguraldi ederra egiten du gaur eta lana atseginagoa gertatzen da.



24 Goizean altxatutako kaiolak, atzera bota behar dira itsasora; ez dago arrantza egiterik amuzki barik.



Aparejoak berriro prestatu behar dira.



26 Arrantza erabat artesanalak egiten du Karinek. Amuzkia edo beita, banan-banan jarri behar da amuetan.



27 Gazez arrainak teink egin dezaten 800 amu botatzen ditu Karinek itsasora...



28 ...amuk bota ondoren, boila jartzen du, biharamunean amuk topatu ahal izateko.



29 Arrantzaileek badute etxerako bidea hartzeko ordua.



Aurpegietan nekea igartzen da.



31 Josune, alabak... gogoan.



32 Arratsaldeko zortzi eta erdiak dira. Bihar beste lan egun bat izango da, baina orain etxeko giro gozoaz gozatzeko unea da.



# Joseina Etxeberria

Hasieratik, duela hamar urte, dabil Euskadi Gaztean esatari lanetan eta etxekoa sentitzen dugu askok. Urduria, alaia eta oso berritsua, Joseina geldi egoten ez dakien horietakoa da. Azkenaldian lanez betebeterik dabil baina berak onartzen duenez, horrelakoa izango ez balitz ez litzateke bera izango.

TESTUA: ESTI EZKERRA / ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

“Egunean zortzi orduz behintzat lo egin behar dela esaten dute. Egunean zortzi orduz lo eginez gero eta 60 urte biziz gero, 20 urte lotan pasatzen dira. Hori niretzat ikaragarria da, sekulako denbora galtzea”

“Irakasleek Lertxundi, Laboa-eta entzuteko esaten ziguten. Gu, horren aurrean, errebelia puntu batekin, Ramones eta AC/DC bezalako taldeak entzuten hasi ginen”

—Hamar urte bete ditu Euskadi Gazteak eta zu hasieratik bertan...

—Niretzat sekulakoa izan da irratia deskubritzea. Betidanik izan naiz musika entzulea eta irratia entzuten nuenetan musika programak baino ez nituen entzuten. Bestela ez nuen irratia entzuten. Euskadi Irratian hasi baino lehenago beste esperientzia batzuk banituen irratia libreetatik. Bilbon bizi izan nintzen urteetan Txomin Barullo eta Gramola irratietan kolaboratzen nuen. Beraz, banekin zerbait mikrofonoz hitz egiteari buruz. Baina irratia libre haietan feedback-aren historia ezagutzeko aukera ez nuen izan; zera... zuk gauza bat esan eta entzuleek erantzutea. Niretzat hori sekulako aurkikuntza izan zen. Telebistan lan egiten dut, aldizkari eta egunkarietan ere kolaboratzen dut baina, zalantzarik gabe, irratia da guztien artean mediorik beroena. Pasadizoak ere mila dauzkat. 90eko hamarkada hasi berri hartan, munstroak ziren Kortatu edo Ruper Ordorika bat eza-gutu ahal izatea, beraiek elkarriketatzea, izugarria izan zen. Agian niretzat politena Natxo de Felipe Oskorriko abeslaria ezagutu eta berak egunero entzuten zidala esan zidanean izan zen.

—Nondik datorkizu musika zaletasuna?

—Ataundarra naiz eta Ataun baserri giroko herria da. Atauneko ikastetxean ibili nintzen eta handik Beasainera

joan nintzen, Alkartasuna Lizeora. Ataunen genbiltzanean irakasleek Lertxundi, Laboa-eta entzuteko esaten ziguten. Gu, horren aurrean, errebelia puntu batekin Ramones eta AC/DC bezalako taldeak entzuten hasi ginen. Gauza horiek garai haietan arazoak ere ekarri zizkiguten. Urte haietan herrira nahiko gogor iritsi zen eta hori entzuten genuenarekin lotzen zen. Guk ez genuen horrekin inolako loturarik, baina bazegoen errebelia ikutu bat Ramones eta gauza hauek entzutean, eta hori guri ikaragarri gustatu zitzaigun. Hortik hasi zitzaidan musika zaletasuna. Musika hori pasatzen zigutenak gu baino nagusiagoak ziren eta Ramones txarrak zirela esaten ziguten, beraiek Led Zeppelin nahiago zutela. Bageneukan erreferentzia hori eta, nahiz eta hasieran gustatu ez, musika entzuten ikasi genuen. Garai hartan hamaika urte edo izango nituen baina ordurako beste gauza batzuk ere gustatzen zitzaizkidan, Boney M edo Fiebre del sábado noche-ren musika. Baina ez zen kontzientea. Kontzienteki eta errebelia puntu horrekin Ramones taldearekin hasi ginen.

—Nahiko hausturazalea omen zara gaur egun ere...

—Nik daukadan arazorik handiena da berehala aspertzeko naizela egiten ditudan gauzekin. Askotan esaten diot neure buruari “zergatik ez ote

naiz normalagoa, nire lagunak bezala, hau gustatzen zait eta kitto”. Niri zerbait denbora batez gustatzen zait baina hurrengo egunean beste zozer. Hausturazalea naiz, baina ez naiz erradikal horietakoa, ez naiz zuritik beltzera saltoan pasatzen. Pausoz pauso joaten diren horietakoa naiz. Tauro naiz azken batean. Oso pertsona sedentarioak garela eta aldaketak ez ditugula gogoko diote. Ez da nire kasua. Niri aldaketak gustatzen zaizkit baina pausoz pausokoak. Aldaketa ezinbestekoa da. Musikarekin berdin. Lehen entzunaldian ez zaizu sekula gustatzen. Entzunaldi bat baino gehiago behar duzu musikariari zukua atera ahal izateko.

—Politika ere ez zitzaizun askorik gustatzen eta azkenaldian nahiko kontzientziaturik zabilta, ezta?

—Neure burua ez dut sekula politikoki posizionatu. Ez zait interesatu, alor horretan sartu beharrik ez nuela uste nuelako. Baina Espainiako irratia kateak entzuten hasi eta orduan piztu zitzaidan zerbait. Euskararen egoera, zer-nolako tratua ematen ziguten... gauza horiek asko kezkatzen ninduten. Irrati horietan Euskal Herriaren egoeraz zer itxura ematen duten ikusita, zer-nolako jipoi mediatikoa ematen diguten ikusita, gero eta abertzaleago bihurtu naiz. Kezka politikoa handia piztu zait kontu horiekin. Ilusio handiko garai hura nola



“Telebistan lan egiten dut, aldizkari eta egunkarietan ere kolaboratzen dut, baina zalantzarik gabe irratia da guztien artean mediorik beroena”



berbetan

LABUR-LABUR

- Kanta bat...  
"You can't hurry love"  
The Supremes
- Liburu bat...  
"El perfume"  
Patrick Huskind
- Jateko...  
Txipiroiak
- Leku bat bizitzeko...  
Donostia
- Leku bat bisitatzeko...  
EEBB, Afrika
- Egun perfektu bat...  
Ez dago, une perfektuak daude. Goiza asko gustatzen zait, gaua are gehiago. Eguerdia gorrotatzen dut.
- Akatsen bat...  
Zalantzez beteriko pertsona naiz.
- Bertute bat...  
Maite ditudan pertsonak benetan maite ditut eta gorroto diedanak benetan gorrotatzen.

zapuztu den kanpo eragile eta geure oreka faltagatik. Gero eta kezkatuago nago honekin.

—Irratian bezain energikoa al zara eguneko gainontzeko orduetan?  
—Ni horrelakoa naiz. Neskalaguna esaterako, desesperatuta daukat. Ezin naiz geldirik egon, aspertu egiten naiz geldirik egonda. Uneoro daukat kalera irten, musika entzun edo irakurri beharra. Niri ez dit balio siesta egiteak. Betidanik dudatan teoria bat da hori. Egunean zortzi orduz behintzat lo egin behar dela esaten dute. Egunean zortzi orduz lo egineraz gero eta 60 urte biziz gero, 20 urte lotan pasatzen dira. Hori niretzat ikaragarria da, sekulako denbora gal-tzea. Ondo pasatzen dut lo egiten baina hobeto pasatzen dut erne nagoenean eta gauzak egiten nabiltzean. Horregatik, normalean inguru-koak gogaitzen ditut. Aitoritu beharra daukat azkenaldian nahiko estresatuta nabilela. Ez baldin banaiz zerbait

egiten ari oso urduri jartzen naiz. Orain nahiko lanpetuta nabil eta apenas daukat denbora librerik. Baina zerbait huts egiten baldin badit eta une libre batzuk badauzkat kezkatzen hasten naiz.

—Irratiari esker ezagun bihurtu zara, horrek kalte ala mesede egin dizu?

—Euskadi Gaztea hasi zenean lau neska eta bi mutil ginen. Sei lagunek egiten genuen dena. Beste mutila ni baino helduagoa zen eta sekulako ahotsa zeukan. Eta ni, berriz, lotsa puntu bat ematen zidan ahots honekin. Baina, behin, taberna batera joan ginen elkarrekin eta bera zerbait eskatzera joan zen. Zerbait falta zitzaigulako ondoren ni joan nintzen eta neska batek ahotsagatik ezagutu ninduen. Beraz, ahots honek badauzka bere alde onak. Hain ahots arraroa izateagatik jendea berarekin gelditzen da. Hasiara batean ezaguna izateak bere puntua ere bazuen. Une honetan ez dit inondik ere molestutzen. Gainera, gustatzen zait jendearekin hitz egitea. Zoriontzera etortzen zaizkit eta horregatik bakarrik merezi du irradian lan egiteak. Nik neure burua uneoro zalantzan jartzen dut. Pentsa, hamar urte daramatzat irradian eta oraindik ere zintak grabatzen ditut neure ahotsa zuzentzeko. Baina hori ez da neure burua superatzeko nahiagatik. Nire izakera hain ahula da, hain konfiantza gutxi daukat neure buruarengan etengabe dudatan jartzen dudala. Batzuetan neure buruari animoak ematen dizkiot, baina jendearen babesak izugarri laguntzen dit.

—Zein da irrati esatari ona izateko gakoa?

—Mikrofono baten aurrean jesarri nintzen lehen aldia gauza bat oso argi eduki nuen: nik pertsona bakar bati hitz egingo diot, beti esango dut "zu" eta "gu". Ni ez naiz inor ezer esateko, horregatik "gu" erabiliko dut eta "zu" horrela pertsona bakarri zuzentzen delako norbera. Beste klabe bat errespetua da; entzuten dagoenarekiko errespetua niretzat lehendabizikoa da. Errespetatu behar dituzu bizitza

"Neure burua ez dut sekula politikoki posizionatu..."

Baina irrati horietan [Espainiakoetan] Euskal Herriaren egoeraz ematen duten itxura ikusita, zeronlako jipoi mediatikoa ematen diguten ikusita, gero eta abertzaleago bihurtu naiz"

honetan dauden egoera eta pertsona talde guztiak. Horretaz kontzientziatzea ez da batere erraza irradian ari zarenean.

—Oso lanpetuta zabilta baina geroari begira asmo berririk ba al duzu?

—Azken bi urte hauetan nire barruan zerbait idazteko beharra piztu zait. Geroz eta indartsuagoa egiten zait gainera. Azkenean nik uste horretara noala. Zerbait idatzi nahi nuke, baina ez orain egiten dudatan bezala, diskoen kritikak aldizkari eta egunkarietarako. Zerbait serioagoa egin nahi dut, liburu bat edo. Liburu bat euskal rockaren historiari buruz, edo ez dakit zein talderen gorabeherak gustura idatziko nituzke.

—Gutxi barru Joseina idazleaz hitz egingo dugu, beraz...

—Ez daukat ia denborarik. Eta egia esateko oraindik ez dut neure burua horretarako gai ikusten. Une honetan 32 urte daukat eta zain nago baldintza minimo batera iritsi arte, urte batzuk egin arte. Neu egin behar naiz lehendabizi gero zerbait egiten hasteko. Ez dakit ni neu sekula egingo naizen ezer, baina horren

zain nago, behintzat. n

HUTSUNEAK BETE

- Ezin izango nuke bizi .....musikarik gabe.....
- Ezin dut jasan .....jende baten itsukeria, harrokeria, mespretxua, komunikabideena batez ere.....
- Mundua hobeto joango litzateke .....
- Zorionsua izateko .....oreka..... behar da
- Beldurra ematen dit .....oreka ezak.....

# San Juan erromeria

## Algorta 2000

Ekainaren 23an San Nikolas plazan

20:30etan: kalejirak herrian zehar  
22:00etan: umeentzako jolasak  
22:30etan: sua piztu, bertsolariak, fanfarria, txistulariak...

eta jakina, txokolate janal

20:30 geroak (gidoiaz) txartu taldeko txistulariak  
20:30 geroak txistulariak txartu taldeko txistulariak

20:30 pertu zaharrek Fanfarria  
21:30 Geltokiko Plaza (Teletxe)  
20:30 geroak Abokariak  
20:30 San Nikolas plazako irrintzi taldea

ANTOLATZAILERAK  
Bizarra Lepoan Euskara Elkarte, Itxartu taldea, Gorrondatxe Kultur Elkarte, Agurra Dantza Taldea, AEK, Jose Antonio Agirre Euskaltegia, Algortako Bertsolari Eskola, UK Uribe Kostako Aldizkaria

BABESLEA  
Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua

UK

URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

Zure moduko irakurleentzat

Jaso UK etxean!! T.: 491 13 37

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

Bodeguilla  
Butron

**gurean euskaraz!**

Bidebitarte 5 ALGORTA

Zure eruz

Publizitatea aetatizilbur

Hemen neme

491 13 37  
73 31 194



# argazkiak

Argazkiak mugeratuak

ARGAZKIAK: ALFREDO ALDAI



**ALFREDO ALDAI**



Alfredo Aldai (Bilbo, 1955) hainbat komunikabidetan ibilitako eskarmentu handiko prentsa-argazkilaria da. Argazki sari batzuk ere eskuratu ditu, adibidez "Photopress" ospetsua. Naufragioen gaineko argazki sorta hau utzi digu.

- EZKERRETIK ESQUINERA**
- GOTIK BEHERA:**
- Zephyr, 1981-1-13
  - Birgit Sabban, 1984-1-3
  - Jervis Bay 1984-1-24
  - Jervis Bay 1984-1-24
  - Jervis Bay 1984-1-24
  - Athen 1974-1-10
  - Athen 1974-1-10
  - Rilos 1999-12-27
  - Rilos 1999-12-27
  - Zephyr, 1981-1-13
  - Birgit Sabban, 1984-1-33





# bidaiak

## Enbargoa ren biktima

TESTUA ETA ARGAZKIAK: GARBINE UGARTE



Gerra guztietan bezala, herria eta ez militarrek izaten dira kaltetuenak. Hainbat lagunekin Irakera abiatu zen Garbiñe Ugarte algortarra, Golkoko Gerra deitu zenaren ondoren irakiarrek bizi duten egoera aztertzeraz

Irakera eraman ninduen bidaia ez zen arrunta izan, ez horixe! Ehun eta berrogeita hamarren bat lagun abiatu ginen Madrietik Bagdadera bertako herria pairatzen ari den egoera ebaluatzearren. Jatorrizko iturrietatik edan nahi genuen, komunikabideek isurtzen duten ur uherretan murgiltzeaz nazkatutik. Izan ere, abiatu aurretik ere konbentziturik geunden Golkoko Gerraren ostetik ezarritako bahitura edo enbargoari amaiera eman behar zitzaiola egoera normalduko bazen. Eta ikusi ahal izan genuenez, ez genbiltzan oker: Irakeko herriaren bizi baldintzak okertuz doaz tragikoki eta modu ez zilegian.

Oinarritzko irizpide etikoez gain, Ginebrako IV. Gailurrean debekatu zen herri zibilaren aurkako bahitura gerra-tresna gisa; 1992 eta 1996an egin zen Mundu Mailako Nutrizio Adierazpenetan ere gaitzesten da elikagaiak presio politikorako erabiltzea. Ez naiz, baina, luzatuko bizitza duina, osasuna eta elikadura egokia izateko eskubidea aldarrikatzen duten adierazpen, gutun unibertsal eta ebazpenei buruz. Ezta zigor ekonomiko bidez presio politikoa ez jasateko buruz ere.

Ez geneukan denbora lar. Lana era azkar eta eraginkorren egin behar genuen, astebete baino ez geneukan eta. Informazioa lortzeko Irakeko agintariekin elkartu ginen: Osasun, Komertzio eta Hezkuntza

ministrokekin; baita Legebiltzarreko lehendakariarekin, Emakume Irakiarren Federazioko lehendakariarekin eta Errepublikako lehendakari ordea den Tareg Azizekin ere. Ospitalak eta eskolak bisitatu ez ezik bonbardeaketak jasandako eremuak ere ikusi genituen.

Lasaitu zaitezte, baina, informazio horri alde-bakarreko irizten diotzen horiek, bertan jasotako datuak bestelako iturriek emandakoekin alderatu genituen eta! Iraken dagoen Nazio Batuen erakundearen ordezkariarekin ere elkartu baikinen. Datuok bat egiten zuten eta tragedia begibistakoa da.

Miseria, gosea eta heriotza Herritarren %70 miseriaren mugaren azpitik bizi da. Langileen %70 langabetua da. Bost urte baino gutxiago-ko umeen %68 ez dago behar bezala elikatuta. Lau haurretatik bat pisu eskasarekin sortzen da mundura, euren amek jasaten duten elikadura txarrarengatik. Horrek hilerio 7.500 heriotz eragiten ditu gaur egun Iraken haurren artean. Bahitura edo enbargoa dela eta ia 1.000.000 haur hil da Iraken. Kopuru antzekoa azaleratzen da biztanleriaren arlo ahulenak aztertuz gero: gaixo kronikoak eta emakume haurdunak.

Gobernuak ezarri behar izan duen hornidura-kartilak ezin ditu bete behar nutritiboak eta jendeak ez dauka bere dieta merkatu librean

osaterik, inflazioa dela kausa.

Bonbardaketek eta bahiturak gaixotasunak ugaltu Golkoko Gerra baino lehen ia denek zeukaten edateko ura, %92k hain zuzen. Orain, baina, egoera erabat bestelakoa da. Alde batetik, eraso militarrek zentral hidraulikoak izan zituzten jomuga —eta gaur egun ere badituzte—. Bestetik, Nazio Batuek ezarritako zigor ekonomikoak kloroa inportatzea debekatzen dio Iraki, lehengai hori armak ekoizteko erabil daitekeen aitzakipean eta, horren ondorioz, gaur egun %44k baino ez daukate edateko ura lortzerik. Hartara, gerra aurretik gaintututa zeuden gaixotasun infekziosoak zabaldu egin dira berriro ere. Adibide bat jartzearen, kolera kasuak 1.200 aldiz biderkatu dira bahitura ezarri zenetik. Osasungintza publikoa zuen Irakeko herriak eskubide 1989tik. Haurren txertaketa %90ekoa zen. Eta Irakeko medikamentuak ekoiztu ez ezik esportatu ere egiten zituen. Egundak, beharren %39ra baino ezin da heldu.

Hezkuntza ere kolokan Irakeko hezkuntza publikoa eta dohainik da 1979az geroztik, baita unibertsitatea ere. Gaur egun, %25 ez doa eskolara, etxeko ekonomian lagundu behar baitu.

Bahituraren eromena zein puntu-

taraino ailegatzen den ulertarazteko asmoz, beste datu bat: zigorrek lapitzak inportatzea debekatzen du, lapitzen grafitoa ere armatarako erabil daitekeela eta. Papera ekoiztea ez da libratzen zigor horietatik, arrazoi beragatik.

Egoera aztertuta, non datza, orduan, 96ko abenduko Ebazpenaren, "elikagaiak petrolioaren truke" izenarekin ezagutzen denaren eraginkortasuna? Hasteko, baimendutako kantitatea ez da nahikoa. Gainera, berorren erdia baino gutxiago besterik ezin da elikagaiak lortzeko erabili. Izan ere, bertatik gerrako kalte-ordainak eta desarmarako batzordeen gastuak deskontatu behar ditu Irakek.

Ezarritako zigorrak altxatu egin behar dira. Ez dago beste irtenbiderik Irak herria desagertuko ez bada. Eta denon parte hartzea da behar-beharrezkoa. Ez ditzagun begiak itxi Saddam Husseinen gainean ditugun aurriiritziak direla eta. Herria ari da sufrizten eta eten gabe hiltzen. Isilik



### IRAK

Populazioa: 20.000.000  
Biztanle-dentsitatea (bizt./km<sup>2</sup>): 45,7  
Hiriburua: Bagdad  
Hiri nagusiak: Bagdad, Basora, Mosul, Kirkuk...  
Erligioa: %95 musulman, %3,7 kristau  
Talde etniko nagusiak: %77 arabiar, %19 kurdu, %1,4 turkomano, %0,8 pertsiar  
Moneta: dian irakiarra

## elkartasuna

### Saharaiak gurean

Urtero bezala, "Atfal" elkarteak eta Getxoko udalak Saharako hainbat ume gurera ekarriko dituzte uda bertan igaro dezaten. Getxora ez ezik, Leioara eta Berangora ere etorriko dira umeak.

Getxoko udala, Saharako herriarekiko elkartasunagatik, duela hiru hilabete hasi zen hango umeak herrira ekartzeko. Ume haiek euren etxeetan jaso zituztenek elkartea osatzea erabaki zuten eta horrela sortu zen "Atfal" (umea esan nahi du hasania-n, saharaiak berba egiten duten hizkuntza) elkartea Getxon. Gaur egun 45 lagunek osatzen dute elkartea. Helburu argia dute: Saharako herria ahal duten neurrian lagundu. Gaur egun umeak, Atfal-ek eta udalak, elkarlanean ekartzen dituzte. Leioan bada beste elkarte bat eta antzera egiten dute; Berangon, berriz, elkarterik ez dago eta udala arduratzen da honetaz.

Ume saharai bat udan etxean hartu nahi duenak ez du ezer ordaindu behar, ume horren mantenua besterik ez, argitu digute Josune eta Karmele Atfal elkartek. Ez da inongo baldintzarik bete behar, borondatea besterik ez. Zortzi eta hamabi urte arteko ume osasuntsuak izaten dira ekartzen dituztenak; gaixontzako badira beste programa batzuk. Asmoa ume hauei basamortuko bizimodu latzetik kanpo opor batzuk eskaintzea da. Elkarrekin, gainera, udan zehar hainbat ekitaldi antolatzen ditu umeontzat. Azterketa medikua ere egiten zaie. Ume bat etxean jaso nahi duenak elkartera jo dezake (655 740 081) edo, bestela, Getxoko udalera ongizate sailera.

Baina Saharako elkartasuna umeak ekarri baino gehiago ere bada Atfal-ekoentzat. Elkarrekin baditu harremanak Emakume Saharaiarren Aldeko Plataformarekin eta Erreferendumaren Aldekoaren kide da.

Azken honek, sekula ailegatzen ez den erreferenduma behingoz egin dadila eskatzeko, kontzentrazioa egingo du Bilboko Arriagan, ekainaren 16an, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Gondidatuta zagoz. n



Goian, Josune Olabarria eta Karmele Amuriza "Atfal" elkarteak. Azpian, ume saharaiak Tindouf-eko errefuxiatuen kanpamenduan



# Jan

gaizka escudero



villabotas-ekoa

## Antxoak kazolatxoan

Antxoaren sasoi bete-betea gaude. Aurtengoa, entzun dugunaren arabera, oso kanpaina txarra izaten ari da gure arrantzaleontzat. Ea datorren urtekoa hobea den!

Antxo (bokarta izenez ere ezaguna dena) hamaika modutan presta daiteke: binagretan, albardatua... Edozelan ere, beti gozo.

Gaurkoan, antxoak kazolatxoan proposatzen dizuet; errezeta erraza eta edozein gonbidaturen aurrean sukaldari onaren itxura emateko baliagarria. Hasteko txikitu berakatz ale batzuk eta gindilarekin batera, oliba oliotan sutan ipini. Berakatz urreztatu baino lehen, bota basokada erdi ozpin eta ardo zuriko beste bat. Olio berotutakoan, bota antxoak (800 gramo, buru barik eta tripak kenduta) eta perrrexila apur bat. Itxaron bost minutu eta segituan mahair! Ez zaizue damutuko. n



# edan

itsaso arana, jolastoki-koa



## Kata

Luis Cañas R. 94

Bodega: Luis Cañas S. A. Villabuena (Araba) • Jatorrizko Izendapena: Errioxa •



Gerezi kolore bizikoa da ardo hau. Sudurrean, indartsua; fruitu gorri onduak eta bainila aromak agertzen dira. Ahoan, berriz, haragitsua, gorpuzduna azaltzen da. Egurra eta frutaren arteko oreka ona. Ardo indartsua. n

Jakin

### Almansa jatorri izendapena

Almansa jatorri izendapeneko ardoak, Albaceteko ekialdeko bazterretan produzitzen dira, Valentzia, Alacant eta Murtzia probintzien artean.

Ezagunenak ardo beltzak badira ere eta nolabaiteko ospea lortu badute ere, ardo gorriak eta zuriak ere ekoizten dituzte Almansan.

Gehien erabiltzen dituzten mahats beltz motak hauexek dira: garnatxa tintorera, monastrell eta zenzibel. Mahats zuri gutxi lantzen da, gehiena airen eta mersegera motakoa da.

Bodegarik aipagarriena: Bodegas Piqué SA

### Aldizkaria "mi vino"

Ardozaleentzat aldizkari interesgarria eta ez garestia: 11 ale gehi urteko tapak, 3.000 pta. Denda espezializatuetan topa daiteke. Onena harpidetza egitea. T: 91 890 71 20



# historia

liburua

TESTUA: J. ASPURU  
ARGAZKIA: MIKEL M.

## Naufragioak

Laster ikusiko du argia Manuel Torres Goñik idatzitako "Historia del Salvamento de Náufragos" liburuaren edizio eguneratua



Berez duela zazpi urte argitaratu zuen liburu hau Manuel Torres Goñik Getxoko Kultur Etxearen eskutik. Edizio bi ezagutu zituen eta orain, hirugarrenean azken urteotako gertakizunekin osatu du. Jakina, Rilos ospetsuak bere tartetxoa izango du. Itsasoaren alderik ilunenera hurbiltzen gaitu Manuelek lan honetan: naufragioak eta euren

ondorioak. Irakurleak Abran eta inguruetan XIX. mendetik gaur egun arte eman diren unti-hondorapen eta salbamendu-lanen berri izango du. Naufragioen zergatiak, naufragoen eta erreskate lanetan aritutako lagunen bizipenak, salbamenduak zelan egin ziren, lan hauetarako erabiltzen ziren bitartekoak, Bilboko Portuan erreskate lanetarako egon diren elkarteak...


hori guztia aurkituko du irakurleak liburu honetan. Gainera han eta hemen lortutako hainbat argazki ikusi daitezke, izan ere, liburu lagun askoren ekarriekin osatu zuen.

Salbamendu-lanak ohituraz bolondresak egin izan dute gure kostaldean: herriko jendea, arrantzaleak... Euren bizitza sarritan arriskuan jarri izan dute besteari laguntzeagatik, pertsonen arteko elkartasun hutsagatik. Lagun hauek omendu nahi izan dituzte egileak eta asko izan badira ere, Portu Zaharreko Ardanza familia nabarmendu du Manuelek belaunaldi belaunaldi honetan ibili izan direlako.

Liburuak helburu kultural hutsa duela esan digu Manuelek, bere ekarpen xumea egin nahi izan diola hain ezezaguna den herriko itsas-historiari. n



Goian, aurreko edizioko liburuaren ale bat  
Ezkerrean, liburuaren egilea Manuel Torres Goñi Arriluzen



Zure eruz  
Publizitatea aetatilbur  
Hemen nemeñ  
491 13 37  
73 31 194

Erosketa etxera eroaten dogu!!



ORDUTEGIA  
Lan egun eta zapatuetan:  
9:00-14:00 / 17:30-21:00  
Domeka eta jai egunetan:  
9:00-14:30

dena-ona  
supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

—UK lagundu nahi baduzu, dirua zuzenean sar dezakezu gure kontu zenbakian— n

BBK 2095 0022 01 3830766915

diru sarrean idatzi zure izena



# Basagoiti-abenida

UNAI ELORRIAGA

Arratsaldeko 7:30 / Jubilatu aurretik gutxiago paseatzen nuen. 2038. urtean jubilatu nintzen ni. Banku batean egiten nuen lan; edo lan baino gehiago aspertu egiten nintzen eta ernegatu apur bat. Eta 2038. urtean jubilatu nintzen eta paseatzen ibiltzen naiz orain. Egutero. San Nicolaseko elizan hasten naiz, Basagoititik. Lehenengo erabakia da gorantz egitea ("Usategi" rantz) ala beherantz ("San Inazio" rantz).

Beherantz egin dut azkenean, ia beti bezala, ederragoa delako iluntzea "Maria Cristina"n beste inon baino.

Erretzeari Uzteko Zentruari (EUZ) begira geratu naiz apur batez. Garai batean liburudenda bat zegoen bertan, antzina: *Oroldi*. Gaur EUZ dago. Gobernuak kudeatzen duela uste dut. Gaztetan liburuen izenburuei egiten genien barre baina gaur ez dago libururik, ez dago izenbururik: funtzionarioak daude.

Apurka-apurka heldu naiz "Iñurrategi anaien plaza"ra. Iñurrategi anaiak zortzimilako mendi ugari (hamalau gutxienez) igo zituzten eskaladoreak dira. Gaur bastoiaz ibiltzen dira eta omenaldiak egiten dizkiete, dozenaka. Garai batean "Teilagorri plaza" deitzen zen hau. Lehenago "Tiloko plaza". Zuhaitz handi bat zegoen bertan. Orain Iñurrategi anaien dedikatu diete plaza. Euren etorri ziren inauguraziora eta omenaldi bat egin zieten bide batez.

"Los Chopos"era heldu naiz berehala (nola idatzi: Chopos, Los Chopos, Txopuak...). Honek bai, honek beti izan du izen bera, edo antzekoa. Hemen biltzen izan gara lagunak urteetan. Oraindik daukate bankuek gure ipurdien marka. Ordutan eman genuen hemen! Bertan pentsatu genuen guztia lehenengo aldiz: bertan pentsatu genuen mendia, bertan pentsatu genituen bidaiak, bertan pentsatu genituen ikasketak eta lana, futbola eta (...). Pentsatu asko, egin gutxi. Usain bera dago orain ere.

"Casino"ko plazari "Francisco Rodriguez de Murueta" izena jarri nahi izan zioten baina inork ez du onartu eta "Casino" esaten diote denek gaur ere. Ez dakit ondo nor zen Francisco hori; idazleren bat, politikoren bat, okinen bat. Kontua da Udaletxean baino ez zutela ezagutzen eta "Casino" dela oraindik.

"Maria Cristina"n amaituko dut gaur paseoa. Batzuetan "San Inazio"ra ere heltzen naiz, indarrez-eta ondo nagoenean. Banku batean jesarri naiz. Emaztea imajinatu dut nire ondoan. Hau izan da Basagoititik egin dudana 7605. paseoa. Emaztea hil zenetik 247.a. Zeruari erreparatu diot. Iluntzeko 9:21 dira. 4

# Ipar Uribeko labela

IPAR URIBE bertso eskualdeak (Txorierri, Mungialdea eta Uribe Kosta) badu txapeldunik: Alfredo Paia. Fredik etxean ez ezik, bertso zerrendan ere ondoan dauka anaia Xabier, honek Ipar Uribeko finalean bigarren egin baitzuen. Etxahun Lekuarentzat izan zen hirugarren postua. Asier Legarreta lotu zen laugarren. Ortzi Garitano bosgarren eta Unai Elorriaga azken. Saioa nahiko bizi joan zen eta bertsolariek gustura utzi zituzten Algortako Zabala ikastetxera maiatzaren 27an hurreratu ziren 180 bat bertsozaleak. Eskualde mailako final hau, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2000ren hasiera dugu eta bertan Fredi, Xabi eta Etxahun bertsolariak izango ditugu Ipar Uribeko ordezkari. Ondoko lerrootan, 27ko saioko protagonistak hobeto ezagutzeko aukera izango dugu, musikariek konparatu dizkigun Zororen eskutik.

TESTUAK: ALBERTO DE ABAJO "ZORO"



ASIER LEGARRETA  
Mungia


Tronpetajole honek, honezkero, 2006.eko San Antontxueta jaien egitaraua buruz daki jakin. Inguruko Larrauri, Meñaka, Gatika, Fruiz eta Mungialdeko bazter eta txokoetako gainontzeko jaien egitaraua ez badaki, lasai, behar izanez gero jakingo du. Eskola klasikoaren iturritik dario bertso moldeak; orraziak dantzan jartzen ditu bertsotan. Txosnaren barratik bere kopeta zabalaren inguruan lehenengo puntuarekin lotsaren urduritasunean animatzen bazara, egon trankil, eskertuko dizu, ohiturak luzatutako hamaika bukaera izango baititu prest erantzuteko. •



ETXAHUN LEKUE  
Larrabetzu

Larrabetzuko karrketan biziki ongi moldatzen den klarinetista. Herriko eskupilota eskolaren, Hori Bai Gaztetxearen hurrengo ekitaldiaren, Patakun triatlo taldearen martxaren edo Bizkargi egunerako txosnen txanden berri luzatuko dizu. Hartara, bertsolaritzaren algaran ere laban egin barik ederki asko moldatzen da Akerlandako artzaia.

Zaratarik sortzen ez duten oinetakoak janzen ditu; eta oraindik enamoratu ez duzun horri bertsotan zure begiekin esaten diozuna esan gura badiozu, eskatuiozu, orduan, azken puntua Etxahuni. •



AITZOL DE KASTRO  
Leioa

Zer izango litzateke Zirkoa Angel Cristo bizi izan ez balitz? Gaien pentagrama zabala bezain sakona aurkezten digu. Itsasoaz ari gara? Baliteke. Zer ikus lezake esploradore batek metro karratu batean? Zer ez? Gaia jarritakoan bertsolariek zer esango duten irrikitan egotea lortzen du Aitzolek, marmarra belarrira eta komentarioak. •




FREDI PAIA  
Algorta

Egunak 24 ordu ditu, ezta? Bibolinarrenak 36 dauka. Tortilla txapelketa batean epaile gisa ikusi dute goizean, trikia jotzen eguerdi partean, bertso bazkari batean ere, kartelak jartzen arratsaldean eta Derioko jaietan garagardo iragarkiarenean barra luzimendua gauzez egiten, bertsotan, baina. Al! Eta Algortan bizi den arren, ez dauka autorik. Fredik adimena zorrotzen du. Ez duzula gogoratzen 83ko agorriean Arrietako Jainko auzoan Jon Lopategik bota zituen bertso liluragarriak? Lasai, utzizkiozu pare bat segundo bere garuneko fitxategia astintzeko eta bibolinak kantatuko dizkizu. •



Bertsolari, sari emale eta antolatzaileen familia argazkia. Bestalde, ekainak 22an, Algortako Portu Zaharreko Etxexu plazan "Balkoitik balkoira" saioa egingo da. Bertsolariak: Jexux Mari Irazu eta Maialen Lujanbio.



ORTZI GARITANO  
Derio

Asierren ilepainez bererara joaten bada ere, emaitzak ez dira berdinarak. Txirula kapaka orrazten baitute. Bermeoko jaietan metro eta zentrimetro askoko deriotar honen biguneko mozorro gaupasa xelebrea izan da, jantzitako 36 zentimetroko gauzez egiten, bertsotan, baina. Kale Algortan bizi den arren, ez dauka autorik. Fredik adimena zorrotzen du. Ez duzula gogoratzen 83ko agorriean Arrietako Jainko auzoan Jon Lopategik bota zituen bertso liluragarriak? Lasai, utzizkiozu pare bat segundo bere garuneko fitxategia astintzeko eta bibolinak kantatuko dizkizu. •

Bizkaiera Ortziaren bertso tankerara dago egina. Baserriko astoa kartetan galdutako eta gero emazte haserretuari baserrira oinez joateko gonbita luzatuko detsa, gau zoragarria dago eta. •



UNAI ELORRIAGA  
Algorta

Arpajole honen eskuek notak itzultzen dituzte Algortako kale kantoietan. Zeinek esan du notak hizkuntza bakar batean idazten direla? Tirantzeko galtza laranjak jantzeko atrebentziarik ez zaio falta, hori bai, amamak egindako artilezko jertsei horren azpian. Egunak argi eta gauak ilun. Testuak idatzita dagoen seinale dira bere bertsoak, kapituluka antolatuta eta amaierara arte eramango zaitu errimatik tiraka. Amaiera? Bukaera? Akabera?

Saiatu zara noizbait adreilu batean marra zuzen bat pintatzen? Erabiltako klarionaren arabera. •



XABIER PAIA  
Algorta

Kaleetatik piano-piano dabil. Pianojole batek edozein egoera musikatu dezake. Xabierrek pianoak eta notak afinatzen ditu. Urduritasunaren harrak ez du bere aurpegia zulatzen, gorritu... noizbait gorrituko da baina neska baten komentario lizunagatik, eta beharbada. Kalearen freskura tabernen iluntasunaren arerio dela esaten dute. Xabierrek agian gauza bera pentsatzen du, agian ez. Bertsosen eskola apurtzea zaila izaten da urrezko errimaz josita dagoenean. Jostun xelebrea bilakatu zaigu Xabier. Hala ere, ezaguna da oskolek ematen duten babes berak gomindu askatasuna kentzen dutela. •



# Anton Garai

## Gorlizko pirata (XV-XVI)

Euskal Herriak hamaika kortsario eta pirata eman izan ditu. Guztiak itsaslapurrak ziren baina ez ditugu nahastu bahar. Kortsarioak estatu jakin batekin hitzartutako kontratu baten arabera (kortso-agiria), atzerriko itsasuntziak eraso eta beraien edukinez jabetzen ziren pertsonak ziren. Agintariak euren interes ekonomiko eta komertzialak gailen zitezen banatzen zituzten baimen berezi hauek. Irabazien zati bat erregearentzat izaten zen eta gainontzekoa, unti jabearen, kapitainaren eta marinelen artean banatzen zen. XVII. mendea izan zen kortsarioen urrezko garaia. Haristegi, Ildiakez, Hirigoien... euskal kortsarioen zerrenda oso luzea da.

Piratak, berriz, euren kabuz eta ekimenez itsasoratan ziren, inongo legeri men egin gabe eta edozein itsasuntziri erasotzen zioten. Euren inguruko datuak oso urriak dira. Anton Garai dugu antzinako euskal piratetako bat. Gorlizen jaio zen XV. mendearen bukaeran. Gaztetan, arrantzale zenean, nabigazio-teknikak ikasi ei zituen. Geroago unti zahar eta handi bat erosi, konpondu eta itsaslapurketari ekin zion (1509). Laster ospea lortu zuen Galiziako kostaldean, Portugal, Ingalterra, Holanda eta Espainiako hainbat untziri eraso egin eta lapurreta egin zielako. Azkenean preso hartu, epaitu eta heriotza-zigorra ezarri zioten. n



“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

Elkarte Anonimoa  
Colón de Larreategui, 25  
Tf. 4230212

ZERBITZU TEKNIKOA  
Tf. 4230213  
48001 BILBAO

**BILBOMICRO**

# “Bertoko eus kereaz enamora nitzen”

Oraingoan Joseba Santxo Algortako semeagaz egon gara, zelan edo halan ingeruko euskal mundutxuan gabiltzan gehienok ezaguna doguna; izan be, Joseba hainbat lan eta izerdi botata dago euskeraren alde, makina bat alor jorratu ditu eta: bertoko euskalduzharrei egineko grabazino

eta ikerketak, bertsozintza, euskera eskolak emon... orain Zubia argitaletxean dabil beharrean. Hainbat izerdi bai, esaneko legez, baina Joseba arean ezagututa ez dot pentsaten horren damurik eukiko deunik, eze hori da euskalzaletasuna honek gizonak dekonal



Joseba Santxo

TESTUA: ANDONI LLOSA / ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ

—Zeu, Joseba, euskaldun peto-petoa zaitugu, hori ezezik euskalzale amorratua be zara. Euskaldun barria zarala entzunte dekot...

—Bai, holan da. Euskera ikisten hasi nitzen ni...—estudiaten esan gure dot, ze txikerretan erdal eskolan bere arean-arean ikisi gendun, ezta? eze ni Bilbon ibil nitzen abaden ikastetzen da euskera asigantza bere euki gendun—, ordu, esan dotelez, euskere ikisten hasi nitzen hamazortzi bat urteaz. Nun hasi? Algortako gau-eskolan. Gorrondaxe dagon kalen lokal bat egon zan eta hantxe ibil gintzezen gu eskere ikisten. Akordun dekot nire lehelengo irakasle, Gaizka Elozegi.... A da nire lehelengo maisu, maisu ona barrez! Gero hortik gora hasi nitzen berotan- berotan, euskalduntze prozesun aurrera, eta honartean. Akabun ba eskolak emoten hasi nitzen. Hori duzti euskera batun dinotsut, eh! Ordu euskera batun denpore ixen zan. Eta gero, neure konture, apurke-apurke jon nitzen kanpoko ta etzeko buztututen... eze geure amara ez zan ixen auskeldune baia haren gurosok bai, eta berak esaneko

berba batzuk akordun dekotezela hasi nitzen belarrik zorrozututen, ikisi guren. Hemeko ingiruko euskere apur bet giau ikertutoko gane sartu ekiden.

—Sartu eta ekin, ezta?  
—Bai. Horretarako, beste bidek itxi barik, Labayrun ingerun ibil nitzen. Hasieran eskolak hartu nenduzen, pare bat ikastaro egin. Arterau ikisiko duzti bere lagungarri ixen jaten eta mejora nendun arin. Denpora gitxigarreren eskolak emoten egon nitzen Labayrun. Bien bitarten, ibil nitzen Getxoko euskaldunek ezetuten, grabaziñok eiten neure konture. Hor, abiapuntu modure hartu letike... Zu akordako zara zelan atxiñe Euskaltzaindiak titulo bat atara eun, B titulo. Apur bet filologian ordeko ixen zan ha, eta tesia egin behar ixeten zan. Nik Bergaran ein nendun, UNEDen, eta tesia pentsa nendun egite Getxoko euskeran ganen.

—Getxoko euskeraren ganen?  
—Bai, eta ederto etor jaten ze hasi nitzen Getxoko jenteaz berbaz, baserriren ibili, pilatute dagon duzti

batuten. Hori sano eskola ona ixen zan niretzako. Grabaziñok mile bider entzun nenduzen, eta baite bertoko euskereaz enamora bere. Esan gure dotsut hor prozesu bat egon zala, eta ordutik eurrera Getxoko euskeran ganen agertuten zan duzti gustoso-gustoso batuten nendun. Ingeru horretan ezetu dot Iñaki Gaminde, kasuterako, makina bat behar egineko gizona. Gero, Xabi Bilbao bere ezetu nendun, Getxoko euskeran azentu ikertuten ibili dana Ameriketara Hualdeaz batera. Argitaratu bere zeezer i'eun ingelesez, euskeraz eta abar. Hori, getxostar duzti ezetu beharreko jenero da. Gero badakit hiztegitxu bat bere eginte dekona Xabik...

—Joseba, ni ingeru honetan arean ibilite nago eta ez dot hori hiztegi inon be ikusi...

—Ez zendun ikusko, baie nik esan notzen Xabiri ba: “hau hiztegitxu urregorri da”, atara beharko lestike handi edo hemeti. Bueno ba, horitez da nire euskalduntze prozesu: batueraz euskeldundu, gero bizkaieraz jantzi eta akabun eskualdeko euskeran sakondu. Horrek hiru elementuk koktelera baten sartuten badozuz eta erain, ahoari da Joseba euskeldune.

—Joseba euskaldune aitatuta... zelan ikusten dozu Euskal Herri euskaldunaren etorkizuna? Batua dala, herriko euskerak direla, zer esango zeunke?

—Bueno, nik esango neuke batua, zorionez, ondo sustraitute daule, polito zabaldu. Nik ez dakit, hori prozesuori behar dan modun ein ete dan, eta ez noa horretan sartzen. Einte dau eta hori da kontu. Baie hor ez da akabaten gauze. Euskera batuak emoten dosku edonora joteko oinarri, ezta? Gauza bakotxari beran neurri emon ber dako. Euskera batu da hizkuntza nazionala. Bizkaiera da euskalki zabalduenetako bat, zabalduena ez bada, eta asko


dekotsu batueri emoteko. Baie ez dire ahaztu ber eskualdeetako berbakerak. Hori duzti bideratu beharra jagok baturantz, baia lar estutu barik: «baratxuri» euskera batua da, baie «berakatz» zeaiti ez da ixengo, ba? Gauzek ez dire lar estutu ber.

—Goazen apur bat parajeago, Joseba. Geure eskualdeko jatorrizko euskeraz, zer? Zein etorkizun ikusi horrerri?

—Batetik, triste ixengo lestike geure ingeruko euskere bakarrik lotute filologia-behar edo lanen mailan, holau jakitunentzako beharra, dokumentuten baino beste inun ez dauena. Alderdi horretati ondo datoz zeun ekiñok. UK aldizkarin aldin-aldin alkarrizketaxu bat egotek bizitasune emoten dotzo euskerari berari. Horrek ekimenok ondo datoz bertoko euskerari atetxuk iriteko. Beste jenero batzuk bere egin ahal ixengo dire, buruari ereite baino ez da.

—Jakin badakit bertso munduan sano ibilita zarana. Emoiguzu apur bet horren barri.

—Puntu honetan, bertoko euskere eta bertsozintze buztutu guren, Josu Landeta be aitetu ber dot. Josu Getxoko Andra Mariko seme da, filologo, euskera irakasle, Bertsolari Eskolako kide, euskaltzale eta bertsozale handi da sano. Lagun handi dekot Josu. Sasoi beten tematu gintzezan baa... Getxoko atxineko ahozko tradiziñok batu ber gendule eta beharren hasi gintzen, baserri bezarri, etzerik etze, elkarrizketak eiten-da. Ordu apur bet harritu gintzesan, ze emoten deu bertan bertsolari egon zirela, eta egon ezeze, bertzotan bere sarri egiten eudela, afisiño egon zala. Uzenen bat esateko diñostezu? Asensio Bidaurrezaga aumenta lei, baite beragaz ibiliko batzuk bere: Patxi Gorordo, Aurre, Plantauxu, Kastrejana... beharra egiten gagozela, kontu polit



asko jakin duz: kasu beterako, bertoko bertsolari bi alkarreaz egon zirela Getxoko taberna baten, Mati tabernan, hasi ziren, ba, bertsozintze berotuten, baia jente asko egon zan tabernan, zarata handi-te, ezin egin bertsozintze. Ordu zer i'euden? Komunera sartu eta barrutik ixi, eta bertan segidu bertsozintze abrosidu arten (barreak).

—Beste xelebrekeriarik...

—Bai. Beste baten, tabernan belurarten ibil ziren bertsolari bi bertsozintze, belutu eta taberna zarratu euden, bertsolari urten kanpora ta: agurra bota bata

bertsozintze eta bestek buelta emon eta kontesta, segidu etzerantz, bata buelta emon eta bestek kontesta, pelikuletako pistoleroen modun. Lau pauso emon orduko buelta eta bertso. Ezin jon etzera ba! Imaginatu orduko Getxo, eh, lau baserri, kamiño luze, eta bertsolari bi etxera jon ezinik, iretargin argiten, ti-ta bertsozintze. n





**"Tabernatxu" Jatetxea**

- MENUAK ASTEAN ZEHAR
- ASTEBURUETAN GAUEZ, MENU BEREZIAK

Zientotxe 39, GETXO. T: 491 16 61

**DOVER IDIO**

Juan Bautista Zabala 12, 2. ALGORTA

460 00 38  
460 63 41

IKASTARO TRINKOAK  
UDA ETA NEGUA  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
UMEAK, GAZTEAK ETA HELDUAK

**Ingelesa  
Frantsesa  
Alemanier**

**Errotalde ileapaindegia**

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A  
ANDRA MARI GETXO

**SANTANA KIOSKOA**

Prensa eta aldizkariak  
**Santana kalea, Amaiarekin bat**

**Iñaki Bitxitegia**

Ω  
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345

**Algorta**

**URA**



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Zure gorputza zaintzen hasia erabaki duzu baina praktikara erotea gehiegi atzeratzen ari zara. Bestalde, aspaldian buruan dabilatzazu asmo horiek gauzatzeko aldi egokia duzu; aprobetxatu!

**AITZURRA**



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Lan inguruko kontuetan erabakirik hartu ezinik bazaude, ez zaitze larritu. Lasaitu, denbora hartu, gogoeta egin, pentsatu eta, ez zalantzarik izan, emaitzak askoz hobekak izango dira. Osasunez, primeran.

**GARIA**



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Bidaiaren bat egiteko gogoak eragin handia izango du zuegan. Momentuz plana besterik ez da baina denborarekin ilusio hori burutzeko aukera izango duzu. Gainera, baliteke ustekabeen, bidai lagun egokia agertzea.

**META**



(Irailak 17 urriak 16)  
Ustekabeko gertaera batek lur jota utziko zaitu, baina hala ere, lasai egon, susto bat besterik ez da izango eta. Osasunez makal zabilta, indar barik. Hortaz, kirol apur bat egiten hasi; laster batean askoz hobeto sentituko zara

**OTSOA**



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Baten bati mesede egitearren, egoera latzean aurkituko duzu zure burua. Orain arte ez zenuen uste pertsonak horrelakoak izan zitezkeenik, baina zoritxarrez horrelakoak ezagutu behar...

**HOSTOA**



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Inoiz lagunak gonbidatzea komeniko litzaizuke, Badirudi aprobetxategi huts legez jokatzeko modu bakarra, badakizu ondo, sakela astintzea da; ez zara horregatik hilko!

**LASTOA**



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Ez al zara diru gehiegi gastatzen ari? Jakizu dirua ez dela berez ugaltzen eta nekez irabazten dela. Gainera, opor egunak datoz eta diru dexente behar izaten da. Gorde ezazu dirua benetan behar denerako!

**HAZIA**



(Urriak 17 azaroak 15)  
Zure bizitza aldatzeko gogoak sentituko duzu, batez ere maitsun kontuetan. Aldaketa onerako izan daiteke baina aldi berean gogorra. Zure beldurrak eta lotsak aztertzeo astia hartu; ez zaizu damutuko.

**ADARRA**



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Iharduera desberdinetan konfiantza osoz eta oso gustura sentituko zara; landatutako hazirik fruituak jasoko dituzu. Gaia adaltuz, suarekin zerikusia duen istripua izateko arriskuan zaude.

**EGUZKIA**



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Adinak benetan zer esan nahi ote duen etengabe galdetzen diozu zure buruari; gogoeta antzua gertatuko zaizu. Pilak jarri, kontu horiek baztertu, alde batera utzi eta denborarik ez galdu. Ekin!

**IRATZEA**



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Formal formal zabilta azken asteotan: egunero hartzen duzu dutxa, zure gauzak txukun eta garbi daukazu, gauza bakoitza non den badakizu... Orain egin behar duzun gauza bakarra jarrera horri eustea da.

**NEGUA**



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Oso apal eta larri sentituko zara. Beharbada zure buruz apur bat ahaztu beharko zenuke eta ingurukoengan arreta gehiago jarri. Gainera, mundua egoera eta leku berrietan beteta dago; ireki begiak!



gurutzegrama

EZKER-ESKUI:

- 1- Ahoz behera 2- Denborako 3- Bat. Bularra
- 4- Nuke, toka. Azkena 5- Errepublikatuz, justu-justu.
- Amerizioa 6- Bokala. Umea, haur hizkeran 7- Edgar Allan...
- Leshotoko autoetan. 8- Ezkontza 9- Hitzaurre
- 10- Badaezpada sakelan eroan behar den hori.

GOTIK BEHERA:

- 1- Agintearen azpian 2- Hura, bizkaieraz. Jupiterren satelitea. Errepublikatuz, doi-doi 3- Ordainez 4- Kartera erori... mutil. Bokala. Zero berbaren erdian 5- sarrisari, bitean... Hiru 6- Eguzkia. Asko 7- Joan zaitetz.
- Anitez.

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

SOLUZIOAK  
EZKERRETIK ESQUINERAK: ahoz, behera, 1. dola, nuke, z. doi, am, u. mutil, Poo, is, erriak, atako, nam, az.  
GOTIK BEHERA: agintean, ha, io, ota, ordainan, zaki, i, er, pitean, ill, oh, mila, zoz, azoz.

Martinez detektibearen kasu berri bat



1. **NO TRESPASSING.** another day is out...

2. **NO TRESPASSING.** kaixo, inspektore... zer gertatu da hemen?

3. kasu bitxia, joe... emagalduta bat hilik, gorputzean odol tantarik gabe

4. ... a res hande...

5. ai, ene! koitadua!...

6. arrastoren bat?

7. konpresa hau, erabilia!

8. **SEVAX FINA Y SEGURA**  
xurgatu... azken tantaraino!!

© Gorka Vazquez 2000



# Josu Amezaga Albizu

IRAKASLEA EHU-KO KAZETARITZA FAKULTATEAN

“Komunikabideak zera edo hura esateko izan ditzakeen

motibazioei buruz gogoeta egin behar dugu”

—Berri bat, informazio bat, komunikabide baten bidez jasotzen dugunean, zer jakin beharko genuke komunikabide horri buruz?

—Gauza asko. Besteak beste norena den komunikabide hori. Ezberdina da “TVEk hau dio” edota “Espainiako Gobernuaren telebista hau dio” pentsatzea. Komunikabideak hori edo beste esateko izan ditzakeen motibazioei buruz ere gogoeta egin behar dugu, bai eta albiste hori ematearen inguruko testuingurua (albeste batzuk betegarri hutsak dira; beste batzuk, telebistan, irudien ikusgarritasunagatik ematen dira, ez gertaeraren garrantziagatik e.a.). Horrek guztiak lagunduko du berria modu kritikagoan jasotzen.

—Atxagak, prentsa ez irakurtzea erabaki zuela zioen duela gutxi, komunikabideak botere bakarra direla eta gaur egun borroka guztiak lengoia harrapatzeko borroka direla. Zer deritzozu?

—Nik ez dut uste komunikabideak botere bakarra direnik. Bistan da boterea badutena, baina ez dira erabat autonomoak. Nekez ikusiko duzu telebista publikoa bere gobernuaren aurkako mezuak ematen, edota BBVAren egunkariak erakunde honen irabazi onartezinen kritika egiten. Bestalde, lengoia harrapatzeko borrokan garrantzia ez da berria. Hizkuntza ez da inoiz neutroa izan, eta gizarteko egitura menperatzaileak birsortu ditu beti (horregatik behar ditugu poetak eta iraultzaileak). Esango nuke gizarteko menperakuntzan gaur egun tresna bat gehiago erabiltzen dela: komunikabideak.

—Informazio “ona, egokia, egiazkoa” jasotzen al dugu?

—Ez. Gehienetan txarra, desegokia edo gezurrezkoa. Txarra, oso zaila baita espazio edo denbora txiki batean zerbait ondo kontatzea, gainera presaka prestatuta, eta beste albiste eta produktu askorekiko lehian. In-



Mikel Martinez

formazioa jaso, jaso egiten dugu, baina horrek gehienetan gutxi balio du errealitatea hobeto ezagutzeko. Desegokia, askotan informazio batek beste errealitate bat ezkututzen baitu. Asteak eman ditugu Elian Gonzalezen kontura negarrez, esaterako, inguruan ditugun eta zuzenean bizi ditugun beste gai batzuei buruz ezer jaso gabe. Eta gezurrezkoa, zentzu bitan; batzuetan gezur hutsak direlako (gogoratu, adibidez, Errumaniako Iraultzaren ingurukoak); beste batzuetan ezinezkoa da inork egia osoa kontatzea; kasurik hoberenean, beti izango da egia zati bat.

—Zelan ikusten duzu gaur egungo “panorama informatiboa”?

—Oso kontzentratua. Oro har kapitalismoan kapitalaren kontzentrazioarako joera badago, komunikabideetan joera hau oso nabaria da. Gero eta gutxiagok gero eta komunikabide gehiago kontrolatzen dute mundu mailan, eta honen ondorioak izugarriak dira. Gainera, kontzentrazioa ez da bakarrik komunikabideena, eta sektore indartsu eta boteretsuen artean gertatzen ari da: komunikazioa eta kultura bankuek edota komunikazioaren teknologiararen enpresek duten presentzia hazkorra erabat adierazgarria da. Euskal Herrian gehien kontsumitzen ditugun egunkari eta telebista bi sektore horiei lotuta daude, nahiko modu zuzenean. Alde horretatik oso

adi egon behar dugula uste dut, saltzen dizkiguten kontu liluragarriak (global village, informazioaren hedapena, e.a.) itsuki sinistu gabe. Baina ez naiz apokaliptikoa, eta joera hauen aurrean gertaera eta ekimen interesgarriak ere hor daude.

—Zergatik uste duzu azaltzen gairela hain gaizto euskaldunok komunikabide espainiarretan?

—Kultura popularretako kontakizun gehienetan daude gaiztoak: telesailetan, filmetan, ipuinetan, e.a. Komunikabideen produktuak gero eta gehiago kontakizunak dira, errealitatea ezagutzeko behar ditugun informazioak barik; batez ere telebista eta irratietan. Oinarri horren gainean, beraz, erraza da gero arrazoi politikoengatik guri buruzko irudi hau edo beste ematea. Euskal Herria ezagutzeko komunikabideez beste modurik ez dutenek erraz sinestuko dute. n

## Euskonews & Media

“Euskonews & Media” Eusko Ikaskuntzak Internet-ez kaleratzen duen astekari elektronikoa da. Kultura nahiz komunikabideei lotutako gaiak jorratzen dituzte bertan, elkarriketa zentral baten eta hainbat artikuluren bidez. Zerbaitetan astekaria monografiko bihurtzen da. Kasu horietan aldeaz aurretik finkatutako gaiaren inguruan hainbat adituren iritzia eta artikulua biltzen dituzte. Edukiak astero berritzen dituzte eta aurreko zenbakiak ikusteko aukera badago. Helbidea honako hau da: [www.euskonews.com](http://www.euskonews.com)



## Aurki.com euskal bilatzailea

Aurki direktorio bat da, link edo lotura euskaldunen bilduma konpleto bat, bilatzaile hierarkiko bat gaztelaniz Olé edo ingelesez Yahoo izan daitezkeenaren kidekoa. Markatutako web orri gehienak euskaraz daude. Euskaldunentzat interes berezia duten erdarazko euskal web batzuk ere ageri dira direktorioan. Gainera bisitariari editore izateko aukera eskaintzen zaio. Merezki du. Ez ahaztu: [www.aurki.com](http://www.aurki.com).

### diala FM

Getxo Irratia	87.6
Euskadi Irratia	88.9
Radio Euskadi	91.7
Kosta Irratia	93.2
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria	96.0
Bizkaia Irratia	102.6
Gorliz Irratia	107.8

# NICANORA DUALAN FILIPINARRA

“Nire ama hizkuntzarekin, tagaloarekin, baditu harremanak euskarak”

Alemanian gasteiztar bat ezagutu eta Bilbora ezkondu zen Nicanora. Bizitzaren gorabeherak Leioara ekarri zuten 1968an 50 urtetako filipinar hau. Piano jolea da, hiru seme-alaba ditu, eta tagaloea, ingelesa eta alemana jakiteaz gain, euskara ikasten ausartu da orain Leioako Udal Euskaltegian.

Non jaio zinen, Nicanora?

Manilan jaio nintzen, Filipinetako hiriburuan.

Nola izan zenuen euskaldunon eta euskararen berri? Zelan heldu zinen Leioara?

Historia luzea da hori... Gasteiztar batekin ezkondu nintzen. Alemanian alemana ikasten nabilela, senarra ezagutu nuen. Garai hartan Bilbon egiten zuen behar nire senarrak eta horregatik, hona jo genuen. Hasiera batean Algortan bizi ginen, gero Leioara etorri ginen bizitzera.

Zergatik aukeratu duzu euskara munduko beste hizkuntza guztien artean?

Hemen bizi naizelako eta hemengo naizenez, ikusten ditudan gauzez ohartzea gustatzen zaidalako: kartelak, iragarkiak... Nire alabak udal euskaltegian ikasten zuen, eta horrek ere animatu ninduen.

Zer dauka euskarak ingelesak edo frantsesak ez daukatena?

Ikasten hasi naizenean ikusi ahal izan dut, nire ama hizkuntzarekin, tagaloearekin, harremak badituela euskarak. Kontuan hartzeko da, 400 urtetan zehar, Espainaren menpe egon zirela Filipinak. Garai haietan, irletara joandako konkistatzaile asko euskaldunak ziren. Kaleetako izenak utzi zizkiguten: Elizondo edo Azkarraga kaleak, adibidez, edo hainbat euskal hitz, gaur egun oraindik indarrean daudenak euskararen esanahi berberarekin: itxura, kili-kili, beste askoren artean. Ikasi ahala gehiago aurkituko ditut.

Nolako harrera izan duzu euskaltegian?

Oso harrera ona izan dut. Nire kasua ohizkoa izan ez arren, oso gustura nago euskaltegi honetan. Osatu dugun taldea oso jatorra da; atsegin dut hemengo giroa.

Euskara ikasteko, zer da gehien kostatzen zaizuna: gramatika, aditza, mintzamina...?

Dudarik gabe, aditza... oso zaila da niretzat. Hitzen kokapenak ere zorrotzen nau... non demontre jarri behar diren hitzak jakitea ez da lan erraza.

Etxean edo auzoan hitz egiteko aukera badaukazu?

Euskaltegian baino ez dut euskaraz hitz egiten. Kaleak ez dizu euskaraz bizitzeko aukera askorik ematen. Batzuetan Euskal Telebista jartzen dut eta saioak jarraitzen saiatzen naiz. Nire lagun filipinarrarekin erdaraz egiten dut normalean. Tagaloea bera ere ahaztuko dut egunen batean.

Zer esango zenioke zure herriko bati euskara lehenbailehen ikasi behar



duela jakinarazteko?

Egia esan, ez dakit, baina gauza bat esango dizut... ni ez naizela euskara ikasten ari den filipinar bakarra, Donostiako euskaltegi batean ikasten ari den margolari filipinar bat ezagutu dut orain dela gutxi.

Euskaldunak nahiko bitxiak garelako denok dakigu, filipinar batek nola ikusten gaitu?

Ni musikaria naizenez, musikarako daukazuen zaletasuna azpimarratuko nuke. Oso doinu politak aurkitu daitezke Euskal Herrian, musika maila handikoak. Oso aberatsa iruditzen zait euskal kultura musikala. Oro har, oso jende jatorra da euskalduna, eskuzabala, atzeritarrei atea zabaltzen dakiena.

Amaizteko Nicanora, zelan esaten da filipineraz “UKren partez San Juan jai alai eta zoriontsuak izan ditzazuela”?

“UK Lumigaya tayong lahal sa pista ng San Juan”. n

TESTUA: RAUL AGIRRE / ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ



atzera begira



## ALGORTAKO “EGUNKARIA” BATZORDEA

Hamar urte beteko ditu aurten EGUNKARIAk; etxean jaso dezakegu edota kioskoan erosi. Zorionez, gaur egun egoera bestelakoa bada ere, hastapenak ez ziren xamurrak izan; alde batetik, erakunde publikoekiko harremanak ez ziren onak eta, adibidez, publizitate instituzionala ukatzen zitzaion EGUNKARIAri. Bestetik, ia zerotik hasi beharra zegoen: iragarleak lortu, akzio erosleak, harpidedunak... Horretarako EGUNKARIA BATZORDEAK osatu ziren Euskal Herriko hainbat herritan. Goiko argazkian, Algortakoa duzue, bost urtez euskaldunok euskarazko egunkari bat izan genezan gogoz, ilusioz lanean ibili zena. Garai hartako argazkirik ez genuenez atzera elkartu ditugu.

AZALTZAL DIRENAK

Goian: Iñaki Azkargorta, Jon Azkargorta, Bittor Egurrola, Joseba Santxo, Begoña Agirre  
 Behean: Josu Arroio, Mertxe Zubiaur, Begoña Martinez, Agurtzane Aldekoa, Paul Benito del Valle



## MUNGIA

oKINdegia

*Algortan badaukagu  
 artisauen ogia  
 izen eta jatorriz  
 da “ogi mungia”.*

*Goizero lortzen dogu  
 obispoen guleria  
 probatu bada edo ez  
 dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 4301076  
 ALGORTA



**TXIBERRI**  
 edantokia  
*frontoi partikularra*

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
 T: 94 676 07 15